

Energia zer da? Testu azterketa

**Irakurri
eta ulertu**

Energia zer da?

Oinez edo lasterka ibiltzean, kirola egitean, mintzatzean, kantatzen dugularik, arnasa hartzean, lanean... energia behar dugu, energia kontsumitzen dugu eta denbora berean beste energia mota bat sortzen! Energia hartzen da eta denbora berean ematen.

Baliatzen dugun lehen energietarik gure muskuluena dugu. Hauek gabe ezin dezakegu kurritu, kantatu, arnasa hartu, mintzatu...

Zenbait milioi urtez, jendeak muskuluen energia, hots besoen indarra baizik ez zekien baliatzen. Baina horrela ezin zuen nahi zuena egin; ahalak ttipiak zeuzkan. Orduan, mendeak eta mendeak iraganez bezala, bere jakitateaz eta inteligentziaz baliatuz, tresna eta makina franko muntatzen ikasi zuen. Energia gehiagoren baliatzen ikasi ere; hots energia iturri gehiago menperatzen. Ura edo haizea baliatuz errotak itzulikarazten zituen; ikatzarekin trenak ibilarazten, eguzkiaren indarrez etxe barneak argitzen...

Jendeak baliatzen dituen energia iturrietarik zenbait energia berreskuragarriak dira eta etengabeak (haizearen, eguzkiaren, olatuen, uraren... indarra) beste batzuk aldiz mugatuak, lurpean fosilizatuak direlaketz. Orain badakigu azken hauek eta gainera batzuk epe laburrean eskastuko zaizkigula: ikatza, petrolioa, uranioa... Hori dela eta, jendeak ikasi beharko du energien zuhurki baliatzen eta bereziki energia berreskuragarrien gehiago erabiltzen.

◀ Testua ulertu: galdeak

- Jendearen muskuluen energia zertan baliatzen zen? Argazkiak edo beste motako ilustrazioak bil itzazu zure erantzunaren egiaztatzeko.
- Gaur egun baliatzen diren energia iturri zenbaiten adibideak eman ditzagun.
- Berreskuragarri diren energia iturri batzuen izenak eman itzazu.

Jarduera

- Testua irakurri eta aztertu.
- Galdeei erantzun.
- Energia iturri baten inguruko baliabideak atzeman ditzagun. Erakusketa bat osa daiteke eskemaz eta horma irudiz.